

2015 / 14

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEEK ANTOLATUTAKO JAIALDIAK, IKUSKIZUNAK, KULTURA EKITALDIAK, KIROL EKITALDIAK ETA ABAR EGITEKO AGERTOKI, HESI, MAHAI, AULKI, HARMAILA ETA BESTE HAINBAT MATERIALEN HORNIDURA, ALOKAIRU ERREGIMENEAN, ETA HORIEK EZARTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOA, ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA
2. MANDATUAK ETA ERANTZUTEKO EPEAK
3. MUNTATZEKO, EZARTZEKO, DESMUNTATZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUAREN DATAK ETA ORDUTEGIAK
4. MATERIALAREN ERABILGARRITASUNA
5. ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. ETA SAN TELMO MUSEOA, S.A. SOZIETATEEK ANTOLATUTAKO JAIALDIAK, IKUSKIZUNAK, KULTURA EKITALDIAK, KIROL EKITALDIAK ETA ABAR EGITEKO AGERTOKI, HESI, MAHAI, AULKI, HARMAILA ETA BESTE HAINBAT MATERIALEN HORNIDURA, ALOKAIRU ERREGIMENEAN, ETA HORIEK EZARTZEKO, MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOA, ARAUTU BEHARKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da enpresa bat edo gehiago hautatzea DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, S.A. eta SAN TELMO MUSEOA, S.A. sozietateek antolatzen dituzten jarduera propioetan zein lankidetzakoetan eta aire zabalean zein lokaletan eta gainerako espazio publiko edo pribatuetan egiten diren jaialdi, ikuskizun, kultura ekitaldi, kirol ekitaldi eta abarretan erabiltzeko agertoki, hesi, mahai, aulki, harmaila eta beste hainbat materialen hornidura, alokairu erregimenean, eta horiek ezartzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko zerbitzua egiteko.

Lizitazio honen xedea ondoren adierazitako loteetan zatituta dago:

1. LOTEA

- **1 erf.:** Agertokietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin, m²-ko.
- **2 erf.:** Oholtza modularrak (tolesgarriak / oin finkokoak), unitateko.
- **3 erf.:** Agertokietarako estalkiak, m²-ko.
- **4 erf.:** Harmailak, eserlekuko.
- **5 erf.:** Harmaila goratuak, eserlekuko.
- **6 erf.:** Agertokiko atzealdeko eta alboetako itxiturak, unitateko.
- **7 erf.:** Agertokirako isurkiak, metro linealeko.
- **8 erf.:** Babes barandak ("beldurra kentzeko barandak"), metro linealeko.
- **9 erf.:** Irekigarri estaliak, 2x2 m-ko neurrikoak, atzealdeko eta alboetako itxiturekin, unitateko.
- **10 erf.:** Agertokirako eskailerak (3tik aurrera), unitateko.
- **11 eta 12 erf.:** Moketa, babesteko plastikoarekin zein gabe, m²-ko.
- **13 eta 14 erf.:** Dagozkion egokitasun ziurtagiriak jaulkitzea.
- **15 erf.:** Materiala berriz leku berean edo beste leku batean kokatzeko zerbitzua (Agiri honen 2. klausulako hirugarren eta laugarren paragrafoetan adierazitakoaren arabera).

2. LOTEA

- **1 erf.:** Hesi metalikoak, 1 m-eko altuerakoak x 2,20 m-ko luzerakoak, unitateko.
- **2 eta 3 erf.:** Hesi metalikoak, 2 m-ko altuerakoak x 3-3,5 m-ko luzerakoak, unitateko.
- **4, 5 eta 6 erf.:** PVCzko / altzairu galbanizatuzko hesiak, 1,05 m-ko altuerakoak x 1 m-eko luzerakoak, esparruetarako -aparkaleku erreserbak-, luzeraren eta aldi bereko esparru kopuruaren arabera.
- **7 erf.:** PVCzko / altzairu galbanizatuzko hesiak, 1,05 m-ko altuerakoak x 1 m-eko luzerakoak, unitateko.
- **8 erf.:** Banderatxoak kokatzeko euskarriak, unitateko.
- **9 erf.:** Mastak, 5, 2,5 eta 2 m-ko altuerakoak, dagozkien euskarriekin, unitateko.
- **10 erf.:** Kable estalkiak, unitateko.
- **11 erf.:** Baliza zinta (250 m-ko luzera), bilkariko.
- **12 erf.:** Hesiak estaltzeko errafia, metro linealeko.
- **13 erf.:** Materiala berriz leku berean edo beste leku batean kokatzeko zerbitzua (Agiri honen 2. klausulako hirugarren eta laugarren paragrafoetan adierazitakoaren arabera).

3. LOTEA

- **1, 2 eta 3 erf.:** Mahaiak, unitateko.
- **4 erf.:** Mahairako babesak, unitateko.
- **5 erf.:** Mahai zapi hegaldunak, unitateko.
- **6, 7 eta 8 erf.:** Aulkiak, unitateko.
- **9 erf.:** Materiala berriz leku berean edo beste leku batean kokatzeko zerbitzua (Agiri honen 2. klausulako hirugarren eta laugarren paragrafoetan adierazitakoaren arabera).

4. LOTEA

- **1 erf.:** Karpa modularrak, 10, 15 eta 20 metroko portikokoak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin, m²-ko.
- **2 erf.:** Karpak, 5x5 m-koak, jaima estilokoak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin, unitateko.

- **3 erf.:** Karpak, 5x4 m-koak, bi isurkikoak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin, unitateko.
- **4 erf.:** Karpak, 3x3 m-koak, jaima estilokoak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin, unitateko.
- **5 erf.:** Karpak, 3x3 m-koak, tolesgarriak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin, unitateko.
- **6 erf.:** Karpetarako zorua, m²-ko.
- **7 eta 8 erf.:** Moketa, babesteko plastikoarekin zein gabe, m²-ko.
- **9, 10, 11 eta 12 erf.:** Karpetarako kontrapisuak, 85, 340, 510 eta 850 kg-koak gutxi gorabehera, unitateko.
- **13 erf.:** Barruko banaketak sortzeko trenkadak, 120x200 eta 200x200 cm-koak gutxi gorabehera, unitateko.
- **14 erf.:** Esekitoki gurpildunak eta dagozkien esekigailuak (25 esekitokiko), unitateko.
- **15 erf.:** Altzari ispiludunak, unitateko.
- **16 erf.:** Erakusmahaiak, 100x50x100 cm-koak gutxi gorabehera, barruko apalategiekin, unitateko.
- **17 erf.:** Barra erakusmahaiak, 190x45x110 cm-koak gutxi gorabehera, barruko apalategiekin, unitateko.
- **18 erf.:** Norabide zutoinak, zinta bilkorrearekin, unitateko.
- **19 erf.:** Ontzi beltzak, 100 litrokoak, heldulekuekin, unitateko.
- **20 erf.:** Dagozkion egokitasun ziurtagiriak jaulkitzea.
- **21 erf.:** Materiala berriz leku berean edo beste leku batean kokatzeko zerbitzua (Agiri honen 2. klausulako hirugarren eta laugarren paragrafoetan adierazitakoaren arabera).

Lizitatuzaileek lote baterako, hainbatetarako edo lote guztietarako eskaintzak aurkez ditzakete.

Agiri honetan aipatzen diren agertokiei edo plataformei dagokienez, Agiri honen **5. klausulan** jasotzen diren estalkien neurri eta ezaugarrieekin bat etorriko dira estalita daudenak eta edozein neurritakoak izango dira estali gabe daudenak.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira Agiri honetan jaso ez diren agertokiak, eta esleipendunez bestelako hirugarrenekin kontratatu ahal izango dira, programatu nahi den ekintzaren ezaugarriek eta beharrek hala eskatzen badute.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira, halaber, Trinitate plazako agertokia eta Zurriola hondartzan Jazzaldian jartzen dena, baita Aste Nagusiko kontzertuen agertoki nagusia ere (gaur egun Sagueseko agertokia da); horiek ere esleipendunez bestelako hirugarrenekin kontratatu ahal izango dira.

2.- MANDATUAK ETA ERANTZUTENAKO EPEAK

Erakunde kontratatzaileek idatziz egingo dizkiote/dizkiete horniduren (alokairu erregimenean) eta, hala badagokio, muntaketen mandatuak enpresa esleipendunari/esleipendunei, ahalik eta aurrerapen handienarekin, eta enpresak/enpresek egindako mandatuari erantzun beharko diote, betiere horretarako eskatutako epea mandatua egiten denetik hasi eta 24 ordukoa edo luzeagoa bada.

Behar den bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, erakunde kontratatzaileek aurreko paragrafoan adierazitakoa baino aurrerapen txikiagoarekin eskatu ahal izango dute hornidura eta/edo zerbitzua. Salbuespen horien arrazoia jardunaldiak lekuz aldatzea izango da, eguraldiaren gorabeherengatik, antolatzaileen behar justifikatuengatik, trafiko arrazoiengatik, herritarren segurtasunarengatik eta abar. Kasu horietan, kontratistak ahalik eta lasterren egin beharko du hornidura eta/edo zerbitzua, mandatua egiten denetik hasi eta 24 orduko epe maximoa inola ere gainditu gabe.

Edozein arrazoi dela medio, instalazioak desmuntatu eta lekuz aldatu behar badira, edo beste modu batean muntatu behar badira, erakunde kontratatzaileak/kontratatzaileek ordainduko ditu/dituzte lan horiek sortutako gastuak, eskaintzan adierazitako prezioa/ordua/pertsona kontuan hartuta, dagokion lotearen arabera, eta Ekonomia eta Administrazio Klausulen Agirian xedatutakoa betez.

Prezio horrek honako lan hauek hartu beharko ditu barnean: elementuak biltzea, desmuntatu diren lekutik kokaleku berrira garraiatzea, eta berriz kokatzea eta antolatzea.

3.- MUNTATZEKO, EZARTZEKO, DESMUNTATZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUAREN DATAK ETA ORDUTEGIAK

Lizitazio honen xede diren elementuak muntatzeko, ezartzeko, desmuntatzeko eta garraiatzeko lanak erakunde kontratatzaileen programazio eta antolakuntza beharren arabera gauzatuko dira.

Lanak lanegunetan egingo dira, ezinezkoa denean eta/edo antolakuntza beharrek ezinezko egiten dutenean izan ezik, eta ahalik eta denbora gutxien erabiliko da instalazioak muntatzeko.

Fakturazioaren ondorioetarako, hiru aldaera hartuko dira kontuan:

- Eguneko ordutegiko zerbitzuak (06:00etatik 22:00etara, asteko egun guztietan).
- Gaueko ordutegiko zerbitzuak (22:00etatik 06:00etara, asteko egun guztietan).
- Zerbitzu jakin bat partzialki egunez eta gauez egiten bada, kostua proportzionalki hainbanatuko da.

Ezin izango da bide publikoan muntatzeko, ezartzeko eta/edo desmuntatzeko lanik hasi 08:00ak baino lehen, ezta 22:00ak baino beranduago amaitu ere, salbu eta inguruetan bizilagunak ez badago; zaratarik sortzen ez duten edo agintari eskudunek

emandako baimen berezirik behar ez duten muntatzeko, ezartzeko eta/edo desmuntatzeko lanak badira; eta/edo behar bezala baimendutako antolakuntza beharrei erantzuten badiete.

4.- MATERIALAREN ERABILGARRITASUNA

Kontratuaren enpresa esleipendunak/esleipendunek etengabe izan beharko ditu/dituzte elementu hauek biltegian gutxienez, Agiri honen **5. klausulan** adierazitako ezaugarriekin:

1. LOTEA

- Agertokietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin: 1.100 m².
- Oholtza modularrak (tolesgarriak / oin finkokoak): 200 m².
- Agertokietarako estalkiak: Agiri honen **5. klausulan, 1. lotean c) letran** adierazitakoak.
- Harmailak: 1.000 pertsonarentzako eserlekuak.
- Harmaila goratuak: 300 pertsonarentzako eserlekuak.
- Agertokiko atzealdeko eta alboetako itxiturak: Agiri honen 5. klausulan izakin minimotzat ezarritako estaldura guztietarako behar direnak.
- Agertokirako isurkiak: 250 metro lineal.
- Babes barandak ("beldurra kentzeko barandak"): 200 metro lineal.
- Irekigarri estaliak, 2x2 m-ko neurrikoak, atzealdeko eta alboetako itxiturekin: 8 unitate.
- Agertokirako eskailerak (3tik aurrera): 20 unitate.
- Moketa, babesteko plastikoarekin zein gabe: 1.250 m² (kolore bateko baino gehiagoko izakin minimoak baloratuko dira).

2. LOTEA

- Hesi metalikoak, 1 m-eko altuerakoak x 2,20 m-ko luzerakoak: 1.500 metro lineal estaltzeko behar direnak.
- Hesi metalikoak, 2 m-ko altuerakoak x 3-3,5 m-ko luzerakoak: 1.000 metro lineal estaltzeko behar direnak.
- PVCzko / altzairu galbanizatuzko hesiak, 1,05 m-ko altuerakoak x 1 m-eko luzerakoak, esparruetarako -aparkaleku erreserbak-: 200 unitate.

- Banderatxoak kokatzeko euskarriak: 200 unitate (bikoitzak) / 400 unitate (banakoak).
- Mastak, 5, 2,5 eta 2 m-ko altuerakoak, dagozkien euskarriekin: 20 unitate.
- Kable estalkiak: 100 m estaltzeko behar direnak.
- Hesiak estaltzeko errafia: 1.000 metro lineal.

3. LOTEA

- Mahaiak: 500 u.
- Mahairako babesak: 100 u.
- Mahai zapi hegaldunak: 25 u.
- Aulkiak: 5.000 u.

4. LOTEA

- Karpa modularrak:
 - 10 metro linealeko portikoa: 500 m².
 - 15 metro linealeko portikoa: 975 m².
 - 20 metro linealeko portikoa: 1.200 m².
- Karpak, 5x5 m-koak: 25 u.
- Karpak, 5x4 m-koak, bi isurkikoak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin: 25 unitate.
- Karpak, 3x3 m-koak, jaima estilokoak: 25 unitate.
- Karpak, 3x3 m-koak, tolesgarriak: 60 unitate.
- Karpetarako zorua: 1.250 m².
- Moketa, babesteko plastikoarekin zein gabe: 1.250 m².

(kolore bateko baino gehiagoko izakin minimoak baloratuko dira)

- Kontrapisuak eta dagokien estalkia: 90 tona gutxienez.
- Barruko banaketak sortzeko trenkadak, 200x200 cm-koak gutxi gorabehera: 25 unitate.
- Barruko banaketak sortzeko trenkadak, 120x200 cm-koak gutxi gorabehera: 50 unitate.

- Esekitoki gurpildunak: 25 unitate.
- Esekigailuak: 625 unitate.
- Altzari ispiludunak: 10 unitate.
- Erakusmahaiak, 100x50x100 cm-koak gutxi gorabehera, barruko apalategiekin: 50 unitate.
- Barra erakusmahaiak, 190x45x110 cm-koak gutxi gorabehera: 30 unitate.
- Norabide zutoinak, zinta bilkorrekin: 50 unitate.
- Ontzi beltzak, 100 litrokoak: 50 unitate.

Lizitzaileek laginak aurkezteko konpromisoa hartzen dute eta kasuan kasuko ikuskapen teknikoaren eskura egongo dira.

5.- ELEMENTUEN EZAUGARRIAK

Oro har, muntaketa bakoitzeko elementu guztiek estetika eta txukuntasun baldintza egokiak eskaini beharko dituzte.

Ez da ez enpresa esleipendunaren/esleipendunen ez besteren publiziterik onartuko.

1. LOTEA

a) Agertokietarako plataformak, dagozkien eskailera eta/edo arrapalekin:

Plataformak modularrak izan beharko dira (neurriak: 2x2, 2x1,33 edo 2x0,66 m edo antzekoa), oinplanoan modulazioaren arabera edozein dimentsio eta formatara egokitzeko modukoak.

Edozein motatako ikuskizun, dinamikoa izan (dantzak, eta abar) zein estatikoa izan, garatzeko lizitzaileak berariaz ziurtatutako sendotasuna edukiko dute.

Plataforma fabrikatzeko panel fenoliko irristagaitza erabili beharko da, suaren kontrakoa eta hidrofugoa. Dantza ikuskizunetarako edo antzekoetarako.

m²-ko erresistentzia 750 kg-koa edo handiagoa izango da. Homogeneoki banatuta egongo dira eta segurtasun koefizientea 1,5 izango da gutxienez (alderdi horiek guztiak materialak egiten dituen enpresak ziurtatu beharko ditu).

Lur mota desberdinetara zein lur maila desberdinetara (lur naturala edo zoladura duena) egokitzeko euskarri teleskopiko moldagarriak edukiko dituzte.

Plataformak 0,60 eta 2,50 metro arteko edozein altueratara egokituko dira.

Sarrerako eskailerak (bi gutxienez, beharko balira), arrapala eta babes barandak (beharko balira) edukiko dituzte. Agertokira sartzeko eskailerek eta arrapalek eguraldi txarra izanez gero estaltzeko aukera (sarrerako tunela) eta atearen edo antzekoaren bidez sarrera ixteko aukera izatea baloratuko da. Halaber, zoruan seinaleztapen islatzailea izango dute.

Teknikari eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bidez bermatu beharko da edozein agertokiren muntaketaren egokitasuna (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena. 15.2. artikulua: "Instalazio finkoek ikusentzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango dituzte aldibaterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatuko beharko da espedientean behar bezala").

b) Oholtza modularrak (tolesgarriak / oin finkokoak):

Oholtza modularrak, tolesgarriak / oin finkokoak, 2x1 metrokoak, material hauekin eginak: aluminioa (markoa), altzairuzko oinak (tolesgarria), altzairuzko edo aluminiozko oinak (finkoa) eta panel fenoliko irristagaitza, suaren kontrakoa eta hidrofugoa.

Altuera erregulatzeko sistema, zorutik 20, 40, 60, 80 eta 100 cm-ko posizioak ahalbidetzeko.

m²-ko erresistentzia 500 kg-koa edo handiagoa izango da. Homogeneoki banatuta egongo dira eta segurtasun koefizientea 1,5 izango da gutxienez (alderdi horiek guztiak materialak egiten dituen enpresak ziurtatu beharko ditu).

Sarrerako eskailerak (2 gutxienez, beharko balira) edukiko dituzte, eta seinaleztapen islatzailea zorian.

Oholtzaren alde bakoitza bereiz erregulatzeko aukera izatea baloratuko da, arrapalak eta gainazal inklinatuak osatzeko aukera izan dadin, antolakuntzaren beharren arabera.

Teknikari eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bidez bermatu beharko da edozein agertokiren muntaketaren egokitasuna (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena. 15.2. artikulua: "Instalazio finkoek ikusentzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango dituzte aldibaterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatuko beharko da espedientean behar bezala").

c) Agertokietarako estalkiak:

Enpresa esleipendunak gutxienez 14 agertokietarako estalkiak izan beharko ditu biltegian beti. Estalki horiek honako neurri hauek izango dituzte gutxi gorabehera:

- 2 estalki 6 x 6 m-koak edo antzekoak
- 4 estalki 8 x 6 m-koak edo antzekoak
- 6 estalki 10 x 6 m-koak edo antzekoak
- 3 estalki 12 x 8 m-koak edo antzekoak

Ezaugarriak:

- Altuerak agertokiko zorutik atzealdean: gutxienez 3,5 metro (6x6, 8x6, 10x6 edo antzekoa) eta 5 metro (12x8 edo antzekoa).

- M2 kalitateko suaren kontrako materiala.
- Haizearen kontrako erresistentzia: 90 km/ordu.
- Kargak: estalki egiturak jasaten dituen kargak zehazten dituzten fabrikatzailearen eta/edo kabinete tekniko baimendunaren ziurtagiriak aurkeztuko dira.
- Behar adinako inklinazioa izango du punturik garaienetik atzealderaino, ur poltsak sor ez daitezen.
- Itxitura estankoa agertokiko egituraren gainean, euria ari duenean urik sar ez dadin.
- Aurrealdean itxitura bat jartzeko aukera bereziki baloratuko da.

Lanak instalatutako metro koadroko fakturatuko dira, altuera, kokapena, zoruaren baldintzak, datak, ordutegiak eta abar edozein izanik ere.

Teknikari eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bidez bermatu beharko da edozein estalkiren muntaketaren egokitasuna, hura instalatzen den agertokiarenarekin batera (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena. 15.2. artikulua: "Instalazio finkoek ikusentzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango dituzte aldibaterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatu beharko da espedientean behar bezala").

d) Harmailak / Harmaila goratuak:

Ezaugarriak:

- Egitura sendoa.
- Metalezko egitura teleskopikoa edo antzekoa.
- Espazio bakoitzaren beharretara egokitzen diren neurriak.
- Korridore ez labaingarriak.
- Aire zabalean erabiltzeko material egokia duten eserlekuak.
- Sarrerako eskailera mailak korridoreen material berekoak izango dira.
- Barandak aurrean, atzean edo alboetara, kasu bakoitzaren arabera.
- Instalatzen den egituraren % 10 (guztizko neurria edozein dela ere) mugikortasun urriko pertsonak erabiltzeko egokituta egon beharko da.

Teknikari eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bidez bermatu beharko da muntaketaren egokitasuna (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituena. 15.2. artikulua: "Instalazio finkoek ikusentzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango dituzte aldibaterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatu beharko da espedientean behar bezala").

e) Agertokiko atzealdeko eta alboetako itxiturak:

Ezaugarriak:

- Materiala: M2 kalitateko suaren kontrako olana.
- Kolorea: beltza.
- Agertokira ura sartzea eragotziko dute (bereziki kontrakoak diren baldintza klimatologikoen kasuan izan ezik).
- Erraz irekitzeko eta ixteko modukoak izango dira eta agertokiko zutabeetan bilduta uzteko aukera izango dute, erraz aplika daitekeen sistema xume baten bidez.
- Neurriak bat etorriko dira instalatuko diren agertokiko estalkiak behar dituenekin.
- Agertokian instalatzeko erabiltzen diren kakoek kamera beltzeko espazio bat ezartzeko aukera eman beharko dute.
- Instalatzean, bela efektua eta/edo orduko 90 km-ko indarra edo txikiagoa duten haizeen eraginez euste kakoak apurtzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.
- Erabilera eta garbitasun baldintza ezin hobetan mantendu beharko dira.

f) Agertokirako isurkiak:

Ezaugarriak:

- Materiala: M2 kalitateko suaren kontrakoa.
- Kolorea: beltza.
- Agertokia instalatzen den esparruko zoruaren eta agertokiko zoruaren arteko altuera estali beharko dute.

g) Babes barandak ("beldurra kentzeko barandak") (agertokietarako, podiumerako eta abar):

Ezaugarriak:

- Materiala: altzairu galbanizatua, aluminio anodizatua...
- Altuera: 110 mm.
- Modularrak.

h) Irekigarri estaliak, 2x2 m-ko neurrikoak, atzealdeko eta alboetako itxiturekin:

Ezaugarriak:

Zorua: **5. klausulako** epigrafe honen a) letran definitutako agertokietarako plataformen ezaugarri berberak.

Atzealdeko eta alboetako itxiturak: **5. klausulako** epigrafe honen e) letran definitutako agertokiko atzealdeko eta alboetako itxituren ezaugarri berberak.

i) Agertokirako eskailerak (3tik aurrera):

Ezaugarriak:

- Eskailera maila modularrak, 30 x 100 cm-ko mailagaina dutenak gutxi gorabehera (eskailera mailen arteko altuera: 20 cm), 8 eskailera maila arte.
- Materiala: panel fenolikoa, 22 mm-ko lodierakoa, gainazal irristagaitzekoa, suaren kontrakoa eta hidrofugoa (suaren eta uraren kontra erresistentea).
- Eskailera agertokiarekin lotzeko konexio sistema.
- Eskubanda bi alboetan.
- Atearen edo antzekoaren bidez sarrera ixteko aukera.

Agertokira sartzeko eskailerek eguraldi txarra izanez gero estaltzeko aukera (sarrerako tunela) eta atearen edo antzekoaren bidez sarrera ixteko aukera izatea baloratuko da. Halaber, zoruan seinaleztapen islatzailea izango dute.

j) Moketa, babesteko plastikoarekin zein gabe:

Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu lisoa, gutxienez 290 g/m²-koa, babes plastiko itsasgarriarekin zein gabe.
- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: hainbat.
- Babes plastikoa duen moketa: erraz ken daitekeen plastiko itsasgarriaren bidezko estaldura.

2. LOTEA

a) Hesiak:

Ezaugarriak:

- Metalezkoak, 1 m-eko altuerakoak eta 2,50 m-ko luzerakoak gutxi gorabehera. Elkarrekin gurutzatu eta lotu eta multzo bakarra osatzeko egokiak.
- Hesi metaliko zurrunaren modelo desmuntagarria, 2 m-ko altuerakoa 3-3,5 m-ko zabalerakoa.
- PVCzko / altzairu galvanizatuzko hesiak, 1,05 m-ko altuerakoak x 1 m-eko luzerakoak, esparruak egiteko -aparkaleku erreserbak-.

HAINBAT

b) Banderatxoak kokatzeko euskarriak:

- Banderatxoak faroletan jartzeko euskarriak; 500 eta 900 mm arteko hegala faroletik.
- Materiala: metala, PVCa, beira zuntza edo antzekoa. Birziklatzeko sistemak erabiltzea bereziki baloratuko da.
- Materiala hainbat zirkunferentzia neurriekin erabiltzeko modukoa izango da.
- Banderatxoak eusteko sistema egokia, bela efektua saihesteko.
- Farolek kalteak jasan ditzaten saihestuko duten elementuz hornitutako euste sistema.

c) Mastak, 5, 2,5 eta 2 m-ko altuerakoak, dagozkien euskarriekin:

Ezaugarriak:

- Materiala: zura, metala, beira zuntza edo beste edozein material zurrun.
- Muntatzeko hainbat aukera eskaini beharko dituzte, instalazioa kokatuko den lekuaren beharren arabera (lurrean, hondarrean, lurrera eusteko aukerarik gabe, beste elementu batzuek eutsita...), euskarrian muntatzeko aukera ere barne dela.
- Banderak jasotzeko soka instalatzeko aukera izan beharko dute.
- Erabilera egoera ezin hobean mantendu beharko dira, arrasto, marra edo bestelakorik gabe.

d) Kable estalkiak:

Ezaugarriak:

- Materiala: dentsitate handiko poliuretanoa.
- Aire zabalean iraunkorra.
- Mihizatze sistema modularra.
- Gainazal ez labaingarria.
- Kargak: tonaje handiko ibilgailuak igarotzea jasan behar du.
- Suaren kontrako erresistentzia.

e) Baliza zinta (250 m-ko luzera):

- Materiala: polietilenoa edo antzekoa.
- Kolorea: gorria/zuria.

- Zabalera: 80 mm.

f) Hesiak estaltzeko errafia:

- Materiala: dentsitate handiko polietilenoa edo antzekoa.
- Kolorea: berdea edo beltza.

3. LOTEA

a) Mahaiak

Ezaugarriak:

- Sendoak.
- Tolesgarriak.
- Gutxi gorabeherako neurriak prezioen baremoan.
- Erabilera baldintza ezin hobetan mantendu beharko dira, garbi eta inolako markarik, pintura arrastorik edo bestelako arrastorik gabe.
- Kontratatutako mahaiak babesteko elementuak eduki beharko ditu, erakunde kontratatzaileek mahaien gainean haien materialari kalte egin diezaioketen elementuak (su txikiak, sukalde eramangarriak...) instala daitezkeela jakinarazten diotenean erabiltzeko.

b) Mahairako babesak:

Ezaugarriak:

- Materiala: altzairu galbanizatua edo antzekoa, suaren kontrako erresistentzia duena.
- Neurriak: 1,85x75 cm-ko neurriko mahaiaren azaleraren % 35erako estaldura.

c) Mahai zapi hegaldunak:

Ezaugarriak:

- Materiala: kotoia edo antzekoa.
- Koloreak: zuria, granatea, urdina...
- Neurriak: 1,85/2/2,05x0,75/0,80x0,75 m-ko mahaien estaldura.

d) Aulkiak:

Ezaugarriak:

- Sendoak.
- Tolesgarriak eta/edo pilotzeko errazak.

- Materiala: zura, poliuretanoa, burdina, plastikoa, skay edo antzekoa.
- Erabilera baldintza ezin hobeetan mantendu beharko dira, garbi eta inolako markarik, pintura arrastorik edo bestelako arrastorik gabe.

4. LOTEA

a) Karpa modularrak, lurrera ainguratuta (pikak edo tako zabalgarriak) eta lurrera ainguratu gabe (kontrapisuak eta dagokien estalkia) eusteko sistemarekin, dagozkien itxitura errezelekin:

a.1.) Karpa modularrak, 10, 15 eta 20 m-ko portikokoak, 5x4 m-ko bi isurkiko karpak eta jaima estiloko 5x5 m-ko karpak:

Ezaugarriak:

- Sabaia eta alboak estaltzeko olanak, 1.100 dtex-eko poliester aurretenkatuzkoak eta erresistentzia handiko PVCzko indukzioarekin.
- Olanen suaren kontrako M-2 erreakzio ziurtatua.
- Izpi ultramore, lizun, gazitasun eta abarren kontra tratatutako olanak.
- Olana iragazgaitzak.
- Olana zuriak.
- Muntaketa modular indibiduala eta bateratua egiteko aukera.
- Alboko altuera minimoa 3 m (10, 15 eta 20 m-ko portikoak), 2,40 m (5x5 m-ko karpak) eta 2,20 m (5x4 m-ko karpak), hurrenez hurren. Alboko altuera handiagoen aukera baloratuko da.
- Zutabeak eta gainerako mihizatze elementuak aluminio anodizatuz egindakoak izango dira.
- Haizearen kontrako erresistentzia minimoa: 100 km/ordu. (alderdi hori materialak egiten dituen enpresak ziurtatu beharko du)
- Karpek lurrera ainguratu gabe eusteko sistema edukiko dute eta nahikoa sendoa izango da haizearen kontrako erresistentziaren arabera karpa altzatzea saihesteko. Euste sistema babestuta egongo da, erabiltzaileek eta beste inork istripurik jasateko arriskua saihesteko. Halaber, karparen beraren estetikarekin bat etorriko da, erakunde kontratatzaileen iritzian.
- Larrialdietako irteeren kartelak eta gainerako legendak EAEko bi hizkuntza ofizialetan adieraziko dira.

Teknikari eskudunak jaulkitako ziurtagiriaren bidez bermatu beharko da edozein karparen muntaketaren egokitasuna (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituenen 15.2. artikulua: "Instalazio finkoek ikusentzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango

dituzte aldibaterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatu beharko da espedientean behar bezala").

a.2.) Jaima estiloko 3x3 m-ko karpak:

- Sabaia eta alboak estaltzeko olanak, 1.100 dtex-eko poliester aurretenkatuzkoak eta erresistentzia handiko PVCzko indukzioarekin.
- Olanen suaren kontrako M-2 erreakzio ziurtatua.
- Izpi ultramore, lizun, gazitasun, eta abarren kontra tratatutako olanak.
- Olana iragazgaitzak.
- Olana zuriak.
- Muntaketa modular indibiduala eta bateratua egiteko aukera.
- Zutabeak eta gainerako mihizatze elementuak aluminio anodizatuz egindakoak izango dira.
- Haizearen kontrako erresistentzia minimoa: 100 km/ordu. (alderdi hori materialak egiten dituen enpresak ziurtatu beharko du)
- Karpek lurrera ainguratu gabe eusteko sistema edukiko dute eta nahikoa sendoa izango da haizearen kontrako erresistentziaren arabera karpa altxatzea saihesteko. Euste sistema babestuta egongo da, erabiltzaileek eta beste inork istripurik jasateko arriskua saihesteko. Halaber, karparen beraren estetikarekin bat etorriko da, erakunde kontratatzaileen iritzian.

a.3) 3x3 m-ko karpa tolesgarriak:

Ezaugarriak:

- Karpek lurrera ainguratu gabe eusteko sistema edukiko dute eta nahikoa sendoa izango da baldintza meteorologiko arruntetan karpa altxatzea saihesteko.
- Goialdean estaltzeko olana bat edukiko dute eta errezelak alboetan eta atzealdean, hala eskatzen bada.

b) Karpetarako zorua:

Ezaugarriak:

- Oholtza flotatzailea: gutxienez 21 mm-ko lodierako taulak edukiko ditu, mihizatze plaka metalikoekin, metalezko bastidorearen gainean muntatuta, isolamendu termikorako eta euri uren isolamendurako.
- Mantentzea: materiala erabilera baldintza ezin hobeetan egongo da, bai segurtasunari dagokionez bai estetikoki, eta ez da onartuko altxaturik, berniz faltarik eta abar.
- Muntatu ondoren, minusbalotasunak dituzten pertsonak modu erosoan sartzeko baldintzak eskainiko ditu.

c) Moketa, babesteko plastikoarekin zein gabe:

Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu lisoa, gutxienez 290 g/m²-koa, babes plastiko itsasgarriarekin zein gabe.
- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: hainbat.
- Babes plastikoa duen moketa: erraz ken daitekeen plastiko itsasgarriaren bidezko estaldura.

d) Karpetarako kontrapisuak, 85, 340, 510 eta 850 kg-koak gutxi gorabehera, eta dagokien estalkia:

Ezaugarriak:

- Material sendoz eginak.
- Pilatzeko errazak eta elkar ahokatzekoak (kontrapisuak ahokatzeko sistemak haiek horizontalean mugitzea eragotzi beharko du).
- Hainbat pisu konbinazioarekin muntatzeko aukera eskaini beharko dute, egin beharreko muntaketaren beharren arabera.
- Egitura karpren zutabeetara moldatzeko egokia izango da. Karpren egiturari eutsiko diote eta orduko 100 kilometro arteko haizeen ondorioz karpa altxatzea eragotziko dute (materialak egiten dituen enpresaren adierazpen teknikoen arabera).
- Estalki zuria izan beharko dute, karpren pareten material berean egin.

HAINBAT

e) Barruko/kanpoko banaketak sortzeko trenkadak, 200x200 cm-koak gutxi gorabehera:

Materiala: zura, melamina, artelazki tapizatua edo antzekoa.

Kolorea: zuria, artile kolorekoa edo grisa.

Beste zenbait: eusteko oina/oinak.

f) Banaketak sortzeko trenkadak, 120x200 cm-koak gutxi gorabehera:

Materiala: zura, melamina, artelazki tapizatua edo antzekoa.

Kolorea: zuria, artile kolorekoa edo grisa.

Muntaketa modular indibiduala eta bateratua egiteko aukera.

Beste zenbait: eusteko oina/oinak.

g) Esekitoki gurpildunak eta dagozkien esekigailuak:

Esekitoki gurpilduna, eroso eta erabilerraza.

Materiala: altzairu kromatua, aluminioa edo antzekoa.

h) Altzari ispiludunak:

Altzariaren materiala eta gutxi gorabeherako neurriak: zur melaminatua edo antzekoa, ertz babesekin.

Altuera: 76 cm. Zabalera: 98 cm. Sakonera: 30 cm.

Ispiluaren ezaugarriak eta gutxi gorabeherako neurriak: 98 x 76 cm. Sakonera: 2,5 cm (bonbillak aparte). Instalazio elektrikoa, argia eta entxufea, lehorgailua/lisaburdinak erabiltzeko.

Kolorea: zuria, beltza...

i) Erakusmahaiak, 190x45x110 cm-koak gutxi gorabehera, barruko apalategiekin:

Materiala: metala, melamina, zura edo antzekoa.

i) Erakusmahaiak, 100x50x100 cm-koak gutxi gorabehera, barruko apalategiekin:

Materiala: metala, melamina, zura edo antzekoa.

k) Norabide zutoinak, zinta bilkorrekin:

Materiala: altzairu herdoilgaitza edo kromatua edo antzekoa.

Altuera: 95 cm.

Oinarri zirkularra, zorurako babesarekin.

Kolore beltzeko zinta bilkorra, 1,80-2 metrokoa.

l) Ontzi beltzak, 100 litrokoak, heldulekuekin:

Plastikozko ontzi beltzak, heldulekuekin; erabilera askotarako.



Donostian, 2015eko apirilaren 10ean

Juan Carlos Izagirre Hortelano

DONOSTIA KULTURA Enpresa Erakunde Publikoko lehendakaria